

IKASTOLAN ELKARBIZITZA EGOKIA BERMATZEKO ARAUAK

1. Sakelakoa eta bestelako tresnak elektronikokoak

“Funtzionamendu eta elkarbizitzarako araudia”(26-6/7. artikulua)

- Sakelakoa eta tresna elektronikokoak ITZALITA edukiko ditugu ERAIKINAREN BARRUAN; kanpo aldean ERABILERA EGOKIRAKO soilik baliatuko ditugu. (Era berean, aurikularrak jasota egongo dira eraikinaren barruan).
- Sakelakoa eta musika tresnak IRTEERETARA eraman ahal izango dira, aurrez finkatutako arauak errespetatuz eta beti ere irakasleen arauen eta baimen pean. ERABILERA EGOKIRAKO soilik baliatuko ditugu.
- Ezin da PSP eta tankerako joko elektronikorik erabili, ez Ikastolan, ezta irteeretan ere.

1.1. NEURRI ZUZENTZAILEAK

Sakelakoa edo tresna elektronikoa jaso eta Zuzendaritzan gordeko du irakasleak.

Berreskuratu ahal izateko gurasoek edo arduradun legalek bila etorri beharko dute ordutegiaren barruan.

***Lehenengo aldian:** jolas garai batean idatzizko hausnarketa egin. Ondoren etxera eraman gurasoek sina dezaten; azkenik, tutoreak ere konpromisoa sinatuko du.

***Bigarren aldian:** hurrengo irteerara sakelakoa eramateko eskubidea galduko du ikasleak.

***Hirugarren aldian:** bizikidetzaren aurkako jokabidetzat joko da, beraz, horri dagozkion neurriak hartuko dira.

1.2. ORDENAGAILUAREN ERABILERA OKERRA

“Funtzionamendu eta elkarbizitzarako araudia”(30.artikulua)

Ikastolako ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa izanik ere) **baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea**. Adibidez; jolasetan, sare sozialetan, txatean...

1.2.1. NEURRI ZUZENTZAILEAK

***Lehenengo aldian:** jolasgarai batean idatzizko hausnarketa egin. Ondoren etxera eraman gurasoek sina dezaten; azkenik, tutoreak ere konpromisoa sinatuko du. Horrez gain, tutoreak eska ditzake gelaren aurrean azalpenak egitea.

***Bigarren aldian:** astebetetz ezin izango du ordenagailua erabili Ikastolan, etxean baliatuko du, eta ez ikasgelan.

***Hirugarren aldian:** bizikidetzaren aurkako jokabidetzat joko da, beraz, horri dagozkion neurriak hartuko dira.

2. Ikasleen eskubide eta betebeharrak

2.1. AURREKO IKASTURTEKO IRAKASGAI PENDIENTEEN KUDEAKETA

Ikasle bakoitzak aurreko urteko irakasgaia gainditzeko egin beharreko lanak, irakurketak edota azterketen berri izango du dagokion irakaslearen eskutik, IRAILEAN zehar.

Pendienteen azterketa guztiak URRIAN gauzatuko dira, arratsaldeko saioetan (13:45-15:35).

Emandako “banakako indartze programan” argi eta garbi azalduko dira burutu beharreko lanak eta epeak, baita zein irakasle-mintegi izango duen ikasleak erreferentziatzat ere.

Tutorea honen guztiaren jakitun izango da uneoro.

Ezinbestekoa izango da gurasoen sinadura jasotzea prozesua martxan jar dadin. Modu honetara bermatuko dugu komunikazioa modu egokian burutu dela.

Azkenik, ikasleak esandako epean **ez baditu egin beharrekoak modu egokian egiten, ekaineko APARTEKO DEIALDIAN** izango du berriro ere irakasgaia gainditzeko aukera.

2.2. MAILAZ IGOTZEA ETA TITULAZIOA ERABAKITZEKO IRIZPIDEAK

(236/2015 dekretuan oinarritua)

Etapako maila batetik bestera igotzeko edo titulaziorako erabakiak ikasleen irakasle guztien artean hartuko dira, kontuan hartuz zenbateraino eskuratu diren etapako helburuak eta konpetentziak.

2.2.1. MAILAZ IGOTZEA

Ikasleak ikasturte batetik bestera igaroko dira hurrengo baldintzak betetzen badira:

- Ikasgai guztiak gainditzea,
- Ebaluazio negatiboa gehienez bi ikasgaietan izatea, ikasgaiok Gaztelania edo Euskara eta Matematika aldi berean ez direnean.

Ikasleek ikasturtea errepikatuko dute hiru ikasgai edo gehiagotan ebaluazio negatiboa dutenean, edo Gaztelania eta Literatura edo Euskara eta Literatura eta Matematikan dagoenean ebaluazio negatiboa.

Salbuespen gisa, hiru ikasgaitan ebaluazio negatiboa duen ikasle bat hurrengo ikasturtera igaroko da baldintza hauek guztiak betetzen direnean:

- ebaluazio negatiboko ikasgaietatik bi ez izatea aldi berean Gaztelania eta Literatura edo Euskara eta Literatura eta Matematika,
- ikasleak ebaluazio negatiboko ikasgaiak gainditzeko interesa eta esfortzua erakustea,

Irakasgaia gainditzeko interesa, besteak beste, hurrengo baldintzak betez erakutsiko da:

- Probetara aurkeztuz eta lanak entregatuz,
- Ikasturtean zehar gelako egunerokoan lankidetzako jarrera erakutsiz (klaseko jardueretan aldizka parte hartu, agindutako lanak egin, beharrezko materialak ekarri...).
- Irakasleen iritziz, ebaluazio negatiboa duten ikasgaiak oztopo ez izatea hurrengo maila arrakastaz gauzatzeko, berreskuratzeko aukerak dituelako eta mailaz igotzea ona izango delako bilakaera akademikorako.
- Eskuratu gabeko helburuak eta konpetentziak eskuratu ahal izateko indartze-neurriak aplikatzea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila desberdinetan izen bera duten irakasgaiak irakasgai desberdintzat hartuko dira.

2.2.2. TITULAZIOA

DEIALDI ARRUNTEAN, ikasleek DBHko titulua lortuko dute ikasgai guztiak gainditzean.

APARTEKO DEIALDIAN, hurrengo egoeretan dauden ikasleek lortuko dute DBHko titulua:

- Ikasgai guztiak gainditzea.
- Ebaluazio negatiboa gehienez bi ikasgaietan izatea eta baldintza hauek guztiak betetzea:
 - ebaluazio negatiboko ikasgaietatik bi ez izatea aldi berean Gaztelania eta Literatura edo Euskara eta Literatura eta Matematika,
 - ikasleak ebaluazio negatiboko ikasgaiak gainditzeko interesa eta esfortzua erakustea,

Irakasgaia gairatzeko interesa, besteak beste, hurrengo baldintzak betez erakutsiko da:

- Probetara aurkeztuz eta lanak entregatuz,
- Ikasturtean zehar gelako egunerokoa lankidetzako jarrera erakutsiz (klaseko jardueretan aldizka parte hartu, agindutako lanak egin, beharrezko materialak ekarri...).
- irakasleen iritziz, ebaluazio negatiboa duten ikasgaiak oztupo ez izatea hurrengo ikasketak arrakastaz burutzeko.

2.3. ASISTENTZIA FALTAK JUSTIFIKATZEKO BALDINTZAK (23.artikulua)

Klaseetara joatea derrigorrezkoa da. Klaseetara huts egitea, **kasu guztietan komunikatu** behar da.

Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzek hezkuntza jarduera arrunten kontsiderazio berdina dute, asistentzia faltak komunikatzeko prozedurari dagokionez.

Gurasoei dagokie seme-alaben huts egitearen komunikazioa. Tutoreari, berriz, ontzat jotzea; zalantza izanez gero, etapako zuzendaritza taldeak erabakiko du onargarria den ala ez.

Huts egitea onartezina denean, familiari jakinaraziko zaio. Huts egite onartezinak behin eta berriz errepikatzen direnean, bai Udaleko zerbitzu sozialei, bai ikuskaritzari emango zaio honen guztiaren berri, legeak agintzen duenari jarraituz.

Ikasleren bat klasera etortzen ez denean, irakasleek erregistro orrian eta beren koaderno pertsonaletan jasoko dute, tutoreari ere jakinaraziko diote.

Ikasleek etortzerik ez dutenean, ahal den guztietan, gurasoek tutoreari idatziz jakinaraziko diote, alde zuzenetik. Ezinezkoa denean, egun berean, telefonoz pasatuko

diote abisua tutoreari eta ikasleak klasera datorren lehenengo egunean ekarriko du komunikazioa idatziz.

Azterketaren bat galduz gero edo lanen bat irakasleari eman behar izanez gero, ikasleak etortzen diren lehenengo egunean dagokion irakaslearengana joko du azterketa egin edo lanak noiz eman beharko dituen finkatzera.

2.3.1. NEURRI ZUZENTZAILEAK: (30, 31 eta 32. artikulua)

Modu egokian justifikatu gabeko asistentzia faltak **jokabide desegokitzat hartuko dira eta dagokien neurri zuzentzaileak aplikatuko dira.**

Jokabide desegoki horiek errepikatuz gero, **bizikidetzaren aurkako faltatzat hartuko da eta dagokien neurri zuzentzaileak aplikatuko dira.**

Bizikidetzaren aurkako falta errepikatuz gero, **bizikidetzaren aurkako kalte larritzat hartuko da eta neurri zuzentzaileak aplikatuko dira.**